

POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN HITZALDIA
Markel Olano Arrese
Donostia, 2008ko irailaren 30a

SARRERA

Batzar Nagusietako lehendakari andrea, diputatu jaun-andreak, batzarkide jaun-andreak, egun on dizuela guztioi. Gipuzkoar guztien zerbitzura egiten ari garen lana azaltzera natorkizue. Urtebete igaro ondoren, hausnarketarako garaia heldu da.

Nire mintzaldiak bi helburu ditu: alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu osatu genuenetik egindako kudeaketaren balantzea egitea; eta bestetik, etorkizunerako helburuak zehaztea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007-2011 kudeaketa plana da gure erreferentzia nagusia.

Nire hitzaldia hiru ataletan banatuko dut:

Lehen atalean, hausnarketa bat egingo dut kultura politiko berriaz.

Bigarrenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketaz hitz egingo dizuet, lurralde orekaz, azpiegitura estrategikoez, lurralde antolakuntzaz, egoera ekonomikoaz eta ongizateaz.

Azkenik, egoera politikoaren azterketa bat egingo dut.

Agerraldi honen hasieran gure kudeaketa planean ezarri genuen bisioa gogoratu nahi dut:

«Guk amesten dugun Gipuzkoan dagoeneko bakea eta normalizazio politikoa lortu dugu. Ez dago lehen eta bigarren mailako herririk. Ez dago ingurune degradaturik. Azpiegitura aurreratuei esker, gure arteko komunikazioa ona da eta ingurumena errespetatuz garapen eramangarrian dihardugu aurrera.

Gipuzkoan bizi garenok geroz eta garrantzi handiagoa eskaintzen diogu kulturari. Gure nortasuna eta balioak dira aurrera egiteko zutabeak. Etengabe berritu nahi dugu. Lan egiten dugun enpresak lehiakorrek dira eta proiektu berriak eta aberastasuna sortzeko gaitasuna dute.

Guk amesten dugun Gipuzkoak geroz eta elkartasun maila handiagoa du. Premia gehien duten pertsonen babes eta laguntza egokia jasotzen dute. Gainontzeko lurralde eta herriekin harreman ona dugu. Mundura erabat irekia dagoen lurraldea gara».

Hau da gure ametsa eta gure gobernuko gida.

1. ZATIA: LEGEALDIRAKO OINARRIA: KULTURA POLITIKO BERRIA

Amets hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa da talde-lana. Ezinbestekoa da lidergo partekatua. Beharrezkoa da kultura politiko berri bat. Kultura politiko berri honek hiru oinarri ditu: erakunde publikoen arteko lidergo partekatua, erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta eta gizartearen parte hartzea.

Gipuzkoako herritar askoren eta nire ustetan, egun bizi dugun zatiketa politikoak eragin zuzena du lurraldeak dituen erronka estrategikoetan; eragin zuzena eta ezkorra herrigintzaren garapenean.

Gipuzkoa lurralde plurala da. Hori aberastasun handia da. Baina, pluraltasun politiko horren barruan oinarritzko adostasunak ezinbestekoak dira aurrera egin ahal

izateko: Posible ote da oinarritzko gai estrategikoetan adostasun hori lortzea?. Nire ustez posible da. Posible eta beharrezkoa.

Lidergo partekatuak, erakunde publikoak, pertsona bakar bat bagina bezala jokatzera eraman behar gaitu. Erakunde publikoen arteko elkarlanean sakontzea ezinbestekoa da.

Adibide bezala jarri nahi nuke Donostiako udalarekin legealdirako sinatu dugun hitzarmena. Hitzarmen horri esker, hainbat eta hainbat proiektu aurrera aterako ditugu, eta hori oso ona izango da donostiarrentzat eta gipuzkoarrentzat.

Ez nituzke ahaztu nahi herriz herri egiten ari garen bisitak. Dagoeneko Gipuzkoako 40 herri baino gehiagotan izan naiz. Gipuzkoa, Aldundiaren eta udalen arteko lan sare bat bihurtu behar dugu. Gipuzkoa kudeatu ahal izateko, Gipuzkoa ezagutu egin behar da. Herriz herri sentitu daitezke Gipuzkoaren taupadak.

Gipuzkoak lidergo partekatua behar du. Ez soilik erakunde publikoen artekoa. Baita erakunde publiko eta pribatuen artekoa ere. Herri proiektu bat ezin daiteke erakunde publikoetatik eraiki soilik. Helburu honen harian, GIPUZKOA AURRERA lan taldea sortu dugu.

GIPUZKOA AURRERA taldeak hiru helburu nagusi ditu: egoera ekonomikoari buruzko diagnostikoa konpartitu eta beharrezkoak diren neurriak proposatzea, lurraldearen garapenerako funtsezkoak diren azpiegitura estrategikoei babesa eskaintzea eta proiektu berrien aldeko apustua egitea. Lan taldea osatzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak, ADEGIK, Gipuzkoako Ganbarak eta Mondragon taldeak.

Herritarrek talde-lana eskatzen digute erakundeoi eta alderdi politikoei. Hori da guk jarraituko dugun bidea.

Aipatu dudan Kultura politiko berriaren hirugarren zutabea herritarren parte hartzea da. Ekimen ezberdinak jarri ditugu martxan gizartearen parte hartzea bultzatzeko. Adibide bezala, Euskal Herriko Unibertsitateekin, EUDELekin edo BAKETIK taldearekin finkaturiko lankidetzak. Lankidetzak guzti hauen bidez esperientzia ezberdinak jarriko dira martxan. Legealdia amaitu baino lehenago gizarte parte hartzearen foru arau berri bat edukitzea da gure helburua.

Ekimen guzti hauen oinarrian ordezkari demokratikoan oinarritutako sistema hobetzeko borondatea dago. Herritarrek politikaren errealitatea geroz eta urrutiago bizi dute eta urrutiratze horrek herrigintza ahuldu egiten du.

Horregatik, erakundeetako herri politiketan herritarren parte hartzeak aldaketa nabarmen bat eskatzen du geure kultura politikoan, geure balio eta jarreretan eta, nola ez, gure jokabide politikoan.

Herritarren partaidetzak legitimitatea eta eraginkortasuna eragiten ditu herri politiketan baina, horrek, talde-lana eskatzen du: herri agintari eta herritarren arteko elkarlana.

2. ZATIA. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KUDEAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak talde-lana egin du. Onartutako kudeaketa plana ari gara gauzatzen eta agintaldiaren hasieran gure buruari jarri genizkion helburuei aurre egiten ari gara.

LEHENENGO HELBURUA:

2.1 LURRALDEAREN OREKA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa egitasmoak Lurralde oreka erdigunean kokatzen du. Lurralde oreka garatu dadin hiru estrategia nagusi ezarri ditugu:

- Lehenik, Gipuzkoako mugikortasun sistema hobetzea.
- Bigarrenik, garapenerako baldintza gutxien dituzten eskualde eta herriei laguntza eskaintzea.
- Hirugarrenik, kultura gure nortasun eta lurralde garapenaren eragile bilakatzea.

2.1.1 Gipuzkoaren mugikortasun sistema hobetu.

Mugikortasun sistema arin, eraginkor eta iraunkorra finkatzea ezinbesteko oinarria da lurralde oreka eta bizi kalitatea ziurtatzeko.

Gure helburua, garraio publikoaren erabilera sustatzea da, ibilgailu partikularraren aldean.

Lurraldebuseko 80.000 txartel egin dira. Bidaiari kopuruaren gorakada nabarmena izan da, batez beste % 13koa 2008ko uztaillean (2007ko uztailarekin alderatuta). Uztailoko datuen arabera, 52.000 lagunetik gora izan dira % 40ko deskontuak eskuratu dituztenak.

Maiatzean amaitu zen Irungo herri barruko autobusak Txartel Bakarraren plataforman sartzeko ekimena. Industrialdeetako mugikortasuna bultzatu da (Ugaldetxo, Apatta Erreka).

2008an zehar, beste talde batzuek ere txartel bakarraren onurak eskuratu ahal izango dituzte. Oinarrizko errentaren onuradunak, bazterketa arriskuan dauden pertsonak, tutoretzapean dauden gazteak, errenta aitortpena egitetik salbuetsita dauden eta pentsio baxuak jasotzen dituzten alargunak % 100eko hobaria izango dute. Hurrek doan izango dute eta gazteek %20eko hobaria izango dute.

Abenduaren hasieran aurreikusita dago Donostiako autobusak (Donostibus) txartel bakarraren sistemarekin bat egitea. Une horretatik aurrera Lurraldebuseko txartelarekin ordaindu ahal izango dira Donostibusen egindako bidaiak.

2009an lanean jarraituko dugu beste herrietako hiri garraioko zerbitzuak txartel bakarrean sar daitezen. RENFErekin eta Euskotrenekin ere hitz egiten ari gara, txartel bakarraren barruan sar daitezen.

Proiektu pilotu bat ezarri dugu landa inguruneetan garraio publikoa indartzeko. LANDABUS du izena. Lehen esperientzian, Aia lotzen da Zarautzekin eta Oriorekin, LANDABUSen bi lineen bitartez, zerbitzu batzuk eskaeraren arabera eginda. Bidaiarien kopurua nabarmen handitu da.

Datorren urtean 20 milioi euro inbertituko ditugu garraio publikoa sustatzen eta antolatzen. Ez dago atzerabiderik garraio publikorako. Datorren urtean 13 milioi euro nahi genituzke erabili txartel bakarra sustatzeko.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundia ahalegin handia egiten ari da bidegorrien foru sarea osatzeko. 2008an 13 milioi euro inbertitu ditugu bizikleta bideen zati berriak eraikitzeko, eta inbertsio erritmo horri eusteko asmoa dugu. Mugikortasunaren ikuspegiari lehentasuna eman behar diogu, aisiaren gaineratik.

2.1.2 Herri txikien garapena, lurralde orekaren oinarri.

Gipuzkoako edozein herritarrek, edozein lekutan bizi dela ere, bizi mailako aukera parekoak eduki behar ditu. Herri txikien garapena sustatzeko sortu dugu LANDA GIPUZKOA32.

1.000 biztanletik beherako herrien garapenari bultzada serio bat eman nahi diogu. LANDA GIPUZKOA32 garrantzitsua da lurralde oreka ziurtatzeko. Baita ere, herri guzti hauetan dagoen aberastasuna mantendu eta indartzeko.

Foru Aldundiak dagoeneko deialdiak martxan jarri ditu herriek beren proiektuak aurkeztu ditzaten. Lan hau ez dugu bakarrik egingo. Udal bakoitzarekin harreman estuan bideratu beharreko proiektua da.

Nekazaritza oro har eta Gipuzkoako nekazaritza bereziki, egoera zaila ari da jasaten. Ahalegin berezi bat egiten ari gara lehiakortasuna mantendu ahal izateko. Lehiakortasunerako ditugun bi arazorik nagusienak giza baliabideen falta eta lur eskasia dira.

Egoera honetan, 2008an abian jarri dira lurrak hobeto kudeatzeko ekimenak. Hori dela eta, LUR BANKUA sortu dugu helburu garbi batekin: ez dadila nekazal lurrik galdu. Nekazaritza sektoreak aurrera egingo badu lurra behar da. Lur merkatu fidagarria sortu behar da. Eta horretarako administrazioaren babesa ezinbestekoa da.

Gipuzkoak aberastasun izugarria du parke naturaletan. Gipuzkoako Foru Aldundia espazio natural hauek definitzen ari da. Orain bukatuko dugu lehen fasea Algorriko biotopoaren zehazpenarekin. Definizio fase hau amaitu ondoren benetako bultzada emateko ordua iritsi da.

Parketxeak berritzen lan handia egiten ari gara: Pagoetako Iturraran, Oiartzungo Arditurri, Ataungo Lizarrusti edota Arantzazun, Aizkorri-Aratz parkerako, eraikiko duguna dira adibiderik egokienak. Natura gune guzti hauei bultzada emateko sare bakarrean integratu behar ditugu kudeaketa eraginkorra eginez.

2.1.3 Kulturaren sorkuntza eta hedapena

Lurralde orekaren zutaberik garrantzizkoena gure kulturaren eta nortasunean oinarritzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak kultur sormena eta hedapena bere herri politiken erdigunean kokatu ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta niretzat, kultura ez da bigarren mailako erakunde lana.

XXI. mendearen hasierako Euskal Herriak informazioaren eta komunikazioaren gizartean dihardu. Ikus-entzunezko hedabideek berebiziko garrantzia hartu dute. Erabakigarriak bihurtu dira. Egungo gizartean, kultur sormena eta hedapena komunikazio sistema aurreratuenen bitartez egitea ezinbestekoa da, gizarte eskakizunei erantzun eta inguruko kultura ekoizpenekin lehiatu nahi bada.

Gure lehentasunak arlo honetan Tabakalera izena du. Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Tabakaleraren inguruan adostasun garrantzitsua lortu dugu. Eraikina egokitzeko lehiaketa publikoa martxan da dagoeneko. Buru belarri ari gara lanean kultur sormen, ekoizpen eta hedapenerako zentro honen garapenean. Gipuzkoan hurrengo bi legealditan kultur inbertsiorik handiena izango da.

Kultura eta informazioaren gizartearen uztarketa honetan, legealdi hasieran Gipuzkoa 2.0 egitasmoa martxan jarri genuen. Egitasmo honen helburu nagusia euskarazko eta euskal edukien inguruko erabilpena interneten sustatzea eta hedatzea da. Urte honetan proiektuaren zehazpena burutu dugu eta azaroan lehen prototipoak ikusi ahal izango ditugu.

Gipuzkoako kultur azpiegituren sarea sendotuz doa: Ekainberri martxan jarri dugu, Berroeta-Aldamarren kudeaketaren ardura gure gain hartu dugu, Dantza Etxea izango denaren lehen urratsak egin ditugu, Gipuzkoako kultur programatzaileen sareak lehen pausoak eman ditu eta ahalegin berezia egin da kultura sustapen eta hedapenean.

Irunen kokatuko den Gordailuaren egitasmoa esleitzeko prozesuan da. Bestalde, Donostiako udalarekin, San Telmo bultzatzeko konpromisoa hartu dugu.

Sustatu ditugun kultur proiektuek (Beasaingo Igartza, Santio bidea indartzeko plana, digitalizazioak, Igartubeitiko interpretazio zentroa ... etabar) Gipuzkoako kultura sarea indarberrituko dute.

Kulturak sarean oinarritutako lankidetzaz eskatzen du. Aldundi honek bat egin du, eta buru belarri arituko da, Donostia, 2016ko Europako kulturaren hiriburu izan dadin. Hautagaitzak aukera ezin hobea eskaintzen digu geure buruaz hausnarketa egiteko; gure elkarbizitza hobetzeko, gure nortasun plurala aberasteko eta inguruko herri eta kulturekin etengabeko elkarriketa eta harremana bultzatzeko.

Gipuzkoan lurralde orekaz, kulturaz, nortasunaz hitz egitean euskara ezin daiteke alde batera utzi. Lehen mailako konpromisoa da niretzat. Legealdiaren hasiera-hasieratik euskararen erabilera soziala normalizatzeko konpromisoa hartu genuen. Horretan ari gara buru belarri Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztietan.

Euskarazko proiektuak garatzen dituzten enpresen lehiakortasuna handitzeko ahalegina egiten ari gara. Euskarazko merkaturak indartu behar da. Bi zutabe nagusi izan ditu gure lanak aurtengo urtean; alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundian garatutako erabilera planean kudeaketa eta, bestetik, euskararen erabilera sustatzeko proiektu eta diru laguntzak.

Eskuartearen dugun proiekturik interesgarrienetako bat, ez bairik gabe, Mintzola da. Mintzola, gure herrian hain garrantzizkoa den ahozko kulturaren sortze eta hedatze lanetan arituko da. Bere egoitza izango denaren zaharberritze lanak aurreikusitako epean bukatu dira eta azaroan sortuko da Mintzola Fundazioa.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Gipuzkoaren garapen orekatuan kirolak duen garrantzia. Lurraldeko kirol ekipamenduen sarea hobetzeko udal guztien premiak aztertu ditugu. Ikuskizun kiroleko talde, kirolari eta ekitaldi antolatzaileei ematen dizkiegun laguntzak indartu ditugu.

Datorren urtean, kirol zerbitzurik ez duten herrietan, oinarrizko arreta zerbitzuen ezarpena bultzatuko dugu, eskualde kontzeptua bultzatuz eta kirol elkarten etorkizuna bermatuz.

2.2. AZPIEGITURA ESTRATEGIKOAK ETA LURRALDE ANTOLAKETA IRAUNKORRA

2.2.1 Gipuzkoako biribilgunea

Mugikortasun iraunkorraren aldeko apustuak atzera biderik ez du. Apustu horretan garrantzi handia dute errepideetako azpiegiturak.

Gipuzkoako biribilgunea osatzen ari da. AP-1a, Gipuzkoak eskuartearen izan duen obrarik konplexuena eta zailena, bukatzen ari gara. Donostiako bigarren ingurubideak, egunean 120.000 ibilgailu jasaten dituen Donostiako saihebidetari konponbidea emango dio. Erritmo onean ari gara lanean. Une honetan, bide honen tarifakazioa aztertzen ari gara, helburu oso argi batekin: pasoko trafikoa Donostiako egungo saihebidetik kentzea.

Urumeako saihesbideak, N-1ak Andoaindik Lasartera duen trafiko altuari erantzuna emango dio. Jarduera ekonomiko handia dago bailara honetan. Astigarraga eta Martuteneko saihesbideak irekita daude. Andoingo eta Urnietako saihesbideak eraikitzen ari dira.

AP-8 errepidea modernizatzeko lanak aurrera doaz. Oiartzundik-Kateara hirugarren lerroak egin ondoren, Aritzetatik Oriorakoa egiten ari gara. Obra hau aprobetxatuz egungo trazatua asko hobetzen ari gara.

Gipuzkoak duen errepiderik zailenetako bat N-1a da. Une honetan bi erronka ditugu nagusiki. Andoingo saihesbidearen proiektua eta Etxegarateko tunelak.

Andoingo saihesbidearen proiektuak N-1a, Urumeako saihesbidea eta A-15a batu egingo ditu. Proiektuak zailtasun maila handia du. Andoingo udalarekin izan dugun lankidetzeta eta adostasun maila aipatu nahi nituzke.

Etxegarateko tunelaren bitartez kurba arriskutsuak kenduko ditugu. Proiektu hau idazteko pleguak prestatzen ari gara.

Gaintxurizketako obrak etzi bertan, ostegunean, inauguratuko dira. Irungo Kateatik Osinbiribileraino N-1 errepidea bikoizteko proiektua idazten hasiko gara.

Ezin dut aipatu gabe utzi, 632 errepidea, Beasain-Bergara. Une honetan Zumarraga-Urretxu zatia eraikitzen ari gara. Une honetan Urretxu eta Bergara arteko zatiaren proiektua idazten ari gara.

Donostiako sarbideei dagokionez, Herrera-Intxaurren lotura, AP-8-Ospitaleak eta Zorroagako tunela eraikitzen ari dira.

Donostiako Udalarekin sinatutako akordioari esker Carlos I eta Igarako sarrerari konponbidea emateko elkarlanean ari gara.

Ahalegin handia egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia eta ahalegin handia egiten ari gara herritar guztiok. Denok dakigu zein den errepideetako egoera. Nik ez diot ez garrantzirik ez larritasunik kenduko. Baina Aldundia ez dago geldi. Kezkaturik gaude eta lanean ari gara. Errepide berriak eraikitzen eta etorkizuneko kudeaketa prestatzen mugikortasuna eta segurtasuna ziurtatzeko.

Egoera horri aurre egiteko, Errepide kudeaketaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzarekin batera batzorde iraunkor bat eratu dugu bide sarea hobetzeko berehalako neurriak hartzeko; besteak beste, trafikoaren egoerari buruz informatzeko seinalizazio panel aldagarriak jartzea edo ibilgailu astunak errepidetik atera behar direnerako bazterbide sistema bat aztertzea. Errepide berriak egiten ari gara baina ez hori bakarrik.

Gipuzkoako errepide sare hau gure lurraldeko mugikortasun sistema osoaren pieza bat da; garraio sistema honek hiru hanka ditu: azpiegiturak, garraio eredu ezberdinen zerbitzu integratua eta garraio publikoaren kulturaren hedapena.

Errepideen kudeaketa sistema orokor bat ezartzeko garaia iritsi zaio Gipuzkoari.

AP-1a amaitzeaz dagoen honetan, eta epe laburrean mugikortasunaren azterketa estrategikoa amaituta edukiko dugula kontuan izanik, ezinbestekoa da tarifikazio sistemaren eztabaidari heltzea. Gai honek adostasun politikoa behar du, eta guztion ardura.

Gainerako sareari dagokionez, gure lanak norabide bikoitza du: batetik, Gipuzkoako edozein puntutik biribilgunera azkar eta seguru iristeko bideak egitea, eta bestetik, sare honek herriengan duen eragina leuntzea.

Zerrenda luzea da: Mutriku-Sasiola, Azkoitia-Urretxu, ireki berri den Zumaiako saihesbidea, Orío, Zarautz, Eibar eta Arroako saihesbideak adibidez. Aipatzekoak dira baita ere, Arrasate, Zizurkil, Elgeta eta Azpeitia-Azkoitia saihesbideak. Proiektu guzti hauek, fase ezberdinetan, martxan daude.

Azkenik, N-121a aipatu nahi nuke. Irundik-Endarlatsara bitarteko errepidea. Nafarroan jarraipena duena. Gipuzkoako errepide arriskutsuenetarikoa izan den honetan, lanak aurrera doaz abiadura onean. Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako akordioak errepide honen berrikuntza posible egin du. Datorren urteko udaran amaituko dugu obra hau.

Laburpen modura, une honetan egiten ari diren lanen kostua 1.000 milioi eurok da.

2.2.2 Azpiegitura estrategikoak eta lurraldearen antolaketa iraunkorra

Azpiegitura estrategikoak ezinbesteko helburuak dira gure lurraldearen gizarte eta ekonomia garapena lortzeko. Bereziki azpimarratu nahi ditut Pasaia biziberritzeko eta Kanpoko Portua egiteko ekimenak. Gogotik ari gara lanean proiektu handi hori aurrera ateratzeko.

Non gaude une honetan? Foru Aldundiak bultzada berezia eman dio Portuko Plan Bereziari. Hasierako onarpena eman diogu. Garapen iraunkorreko txostena daukagu eta portura bidali dugu, planean sar dezaten. Ziur nago 2009an plan berezia onartuko dela.

Pasaia biziberritzeko proiektuari dagokionez, Antxo bulebar bihurtzeko lehenengo fasea amaituta dago eta Donostiako Udalarekin akordio batera iritsi gara Herrerako errepide-lotune berria egiteko. Herrerako enpresekin ere akordio bat lortu dugu Nabalalden kokatzeko enpresa horiek, eta gune horretako pabilioiak egokitzeko lanak egin ditugu.

Kudeaketako aparteko aurrekontuan aurreikusten den moduan, Pasaia biziberritzeko lanetan 14 milioiko inbertsioa egingo dugu, eta Herrerari dagokionez, beste 6 milioi xedatuko ditugu.

Badia biziberritzeko eta kanpoko portua egiteko proiektuak Jaizkibelgo garraiobide anitzeko korridorearen zati dira eta bere baitan hartzen dute zentzu osoa. Aurrera goaz korridorean beharrezkoak diren garraio eta logistika azpiegituren diseinuan. Era berean, aurrera goaz Pasaia portuaren azpiegitura lagungarrien diseinuan, eta horretarako Portuko Agintaritzarekin hitzarmen bat egin dugu portuko sarrera tunelen proiektua idazteko eta portuaren ingurumen azterketaren prozesuan sartzeko. Proiektu horretarako 100 milioi eurotik gorako inbertsioa aurreikusita dago.

Gai honetan behin betiko jauzia egiteko garaia heldu da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera garbia eta irmoa da. Aurrera egin behar dugu badia biziberritzeko proiektuan eta kanpoko portua egiteko erabakia eman behar dugu, atzerabiderik gabe. Baina horretarako, nahitaezkoa da prozesu honetan inplikaturik gauden aktore guztiok egin behar dugun ibilbide-orria adostea eta behin betiko itxitzat ematea.

Herrera osoaren behin betiko antolaketari ekiteko eta aprobetxamenduak zehazteko, Herrerako zati batean desatxikipenak egiteko eta behin betiko

antolamenduan aurreikusitako ekipamendu proiektuak gauzatzen joateko, akordio bat lortu behar dugu eskumena duten erakundeekin.

Pasaia biziberritzeko oraingo portuaren jarduera kanpora ateratzea eta portu barrua biziberritzea ezinbestekoak dira. Kanpoko portuaren lanak, neurri batean, portuko jarduerak gaur egun hartzen dituen lur sailen salmentarekin finantzatu ahal izango dira. Lur sail horiek inguru guztia biziberritzeko nahitaezko osagai dira.

Alderdi asko aztertzeke garaia da. Lehen-lehenik, proiektua behin betikoz argitu behar da eta ingurumen baldintzak zehaztu. Bigarrenik, Estatuarekin adostu behar ditugu Herrera jaregiteko eta kanpo portua eraikitzeke baldintzak. Hirugarrenik, biziberritzeko prozesua definitzen hasi beharra dago gizartearen parte hartzearekin. Une honetan, hiru alderdi horietan ari gara lanean. Pasaialdea biziberritzea eta kanpoko portu berria funtsezko proiektuak dira gipuzkoarrantzat. Halakotzat hartzen ditugu gehienok. Gai hau liskar politikoez kanpo uzteke gauza izango ote gara? Nik hala uste dut. Ordularia martxan ipini behar dugu.

Gipuzkoarentzat giltzarri den beste azpiegitura bat Hondarribiko aireportua da. Argi eta garbi mintzatu nahi dut. Gipuzkoak ahal bezainbatean erabili behar ditu aireportuaren ahalmenak. Baina nahitaezkoa da haren etorkizuna aztertzea lurraldearen eta inguruaren mugikortasun sistemaren barruan.

Aitortu dezagun: gure aireportuak mugakizun fisiko handiak ditu. Kudeaketa estatuaren esku dago beti. Orain arte ez gara behar adinako adostasunik eraikitzeke gauza izan. Gure inguruan aireportu asko ditugu. Espainiak eta Frantziak aireportu jardueraren garapena mugatzeko hitzarmen bat dute. Eta horrez gain, lastertasun handiko tren iritsi da. Horra gure panorama. Eta gipuzkoarrei esan egin behar diegu aireportuaren etorkizuna errealitate konplexu horren barruan ari garela kudeatzen.

Hasteko, funtsezkoa da aireportuko azpiegituren baldintzetan lerma nabarmenik ez izatea. Beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egin ditugu hori horrela izan dadin, beti ere, jarrera hori segurtasun bermearrekin bateragarri eginez.

Euskal erakundeen arteko gutxieneko adostasunari esker, akordio bat lortu zen Madrilgo Gorteetan, Hondarribiko aireportuaren jarduerari eusteko eskatzen zuena.

Lanean ari gara aireportuko sarbideak diseinatu eta modernizatzeko; AENAK eta Hondarribiko Udalak egindako ekarpenak bildu ditugu eta datorren urtean, aldaketak onartu ondoren, hasiera emango zaie lanei. ORTZIBIAREN barruan merkatu berriak sustatzen eta aztertzen ari gara.

Lurraldeari buruzko eta komunikazio azpiegituri buruzko hausnarketa estrategikoak, nahitaez, trenbide sistemaz hitz egitea eskatzen du. Ezinbestekotzat jotzen dugu trenbide garraioa beste garraio moduekin integratzea (txartel bakarraren aldeko eta oraingo trenbide sistema hobetzeko apustu garbia egin dugu).

Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari gara topoaren bideak bikoizteke. Gure ustez ibilgailu partikularraren erabilera gutxitzeko trenna da etorkizun gehien duen hautabideetako bat eta, ondorioz, totoa metro bihurtzea proposatu dugu, garraio publikoa indartzeko eskemaren barruan, arian-arian finkatu beharreko helburu gisa.

Aldirietako trenbide sareaz gain, Eusko Jaurlaritza abiadura handiko euskal trenbide sare berria egiteke lanak gauzatzen ari da, Gipuzkoatik igarotzen den euskal Y-a. Euskal Y-a aukera handi bat da EUSKAL Herriarentzat eta Gipuzkoarentzat. Gure herriaren barne egituraketa ahalbidetzen du eta Europarekin eta penintsularekin lotzen gaitu. Euskal Y-ak ez du, besterik gabe, trafikoaren arazoa konponduko, baina bidaiari eta salgaien sare mistoak gero eta beteagoa dagoen trafikoa

kudeatzen lagunduko du. Ez dago zalantzarik: gure garapenerako giltzarri izango da.

Aurrea hartu behar diogu egoerari, eta hausnarketa bat egin garraiobide berri horrek ekarriko dituen aldaketez eta gaitasunez. Eztabaida hori egin behar dugu hemen. Zer ondorio ditu gipuzkoarrantzat, esate baterako, Gasteiztik 30 minutura, Madrildik 2 ordura eta Parisetik 5 ordura egoteak?

Beste eztabaida bat, nahitaezkoa baita ere, lurralde antolakuntzari buruzkoa da. Zein eraldaketa izango dute Ezkio-Itxasok, Astigarragak edo Irunek errealitate berri horretan, sare berriaren geltokiak egiten direnean? Gipuzkoako Foru Aldundia egoera horien azterketa egiten ari da.

Hiri hondakinen kudeaketa, horra beste giltzarrietako bat gure lurraldearen garapenerako. 2007ko maiatzean, hitzarmen bat sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta mankomunitateen artean, hondakinen kudeaketaren etorkizuna zehaztearren. Aurtengo otsailean, San Markos Mankomunitateak ekarpenen hitzarmena onartu zuen, eta horri esker 105.000 tona zabor Sasietako, Urtetako eta Lapatxeko zabortegietara bideratu ahal izango da. Otsailean ere, GHK sozietate publikoa eratu zen. Soberako 25.000 tona zabor beste zabortegi batzuetara desbideratzeko akordio bat lortu zen Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundien artean.

Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren Aurrerapen Agiria idatzi dugu. Aurrerapen garrantzitsuak jaso ditugu prebentzio, birziklatze eta konpostatze helburuetan. Laster onartuko da Hondakinen Azpiegituren Lurraldeko Alorreko Plana, eta horri esker gure hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eraiki ahal izango dira.

Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak eratu duten elkarlan trinkoari esker, behar den adostasun lortu dugu Donostiako hirigintza arauak berraztertu eta hondakinak kudeatzeko zentroa Zubietan ezarria izan dadin, eta plataforma gehigarri bat errausketako zepa guztiak birziklatzeko planta bat kokatzeko.

Uztailean, GHK sozietateak, Zubietako Hondakinen Kudeaketa Zentroaren Proiektua idazteko kontratua esleitu zuen. Hil honetan, San Markos Mankomunitatearekin adostu dugu garraiobide gehigarriak jartzea hondakin guztiak beste zabortegietara desbideratu eta zabortegia behin betiko itxi ahal izateko. San Markoseko zabortegia ixtea egun batzuen kontua da.

Datorren astean, Diputatuen Kontseiluan onartuko da lurraldeko hondakinen kudeaketa arautuko duen Foru Arau Proiektua.

Prebentzioaren eta birziklapenaren aldeko apustua egin dugunez, ontziak bereizteko Legazpiko planta zabaldu eta modernizatzeko lanetan, Lapatxeko konpostatze planta berrian eta Sasietako garbigunean parte hartu dugu. Gure helburua da 2016a baino lehenago hondakin guztien % 57 erreziklatu eta konpostatzea. Azpiegitura horietan guztietan Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioa funtsezkoa izan da.

Asko dago egiteko, baina aurten egin den guztiak oinarri sendoak ezartzen ditu Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren arazoari behin betiko konponbide bat emateko bidean. Bai Aldundiak bai Hondakinen Kontsortzioaren organoetan dituen ordezkariak proiektu hori biziki bultzatzen jarraituko dute, bertan bildutako helburuek hiri hondakinen kudeaketa iraunkor eta modernoaren buruan jartzen baikaituzte Europa mailan.

Uraren kudeatzean ere jauzi kualitatiboa egin beharra daukagu. Saneamenduko eta hornidurako proiektuak idazten eta obrak egiten jarraitzen dugu bi helburu garbirekin, batetik, herritar guztiei ur hornidura bermatzea (kantitatean eta kalitatean) eta, bestetik, gure ibaietako eta horiei lotutako ekosistemetako uraren kalitatea berreskuratzea.

2009an guztira 30 bat milioi euro inbertituko ditugu obra hidraulikoetan, eta 74 milioi euro inguru legealdi osoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera guztiek Batzar Nagusietako Garapen Iraunkorreko Batzordeak uraren erabilera iraunkorrerako aurkeztu zituen jarraibideak betetzen dituzte. Jarraibide horietan epe ertaineko eta luzeko helburuak eta aurreikuspenak jasotzen ziren.

Azpiegitura estrategikoez ari gara. Iraunkortasun ekonomikoaz eta sozialaz ari gara, baina baita ere ingurumen iraunkortasunaz. Aldundiak ingurumenaren ikuspegia txertatu du bere politika guztietan, gure nortasunaren funtsezko osagai gisa. Lurralde orekaren estrategia osoaren ardatza da hazkundera gure inguru naturalarekin bateraturik gertatzea.

Era berean, Gipuzkoako mugikortasun azpiegitura eta zerbitzuen eskema ikuspegi horrekin ari gara eraikitzen. Garapen iraunkorra ez da, soil-soilik, bete beharreko helburu bat, baizik politika publiko guztietan txertaturik dagoen egiturazko aldagaia.

Adierazi nahi dut, baita ere, zalantzarik gabe ari garela kontzientzia eta sentiberatasun handiagoa lantzen. Bide horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Tokiko Agenda 21 ekimenaren garapenean parte hartu du 2008an, eta horretan jarraituko du 2009an ere.

Iraunkortasunaren eztabaida energiaren eztabaidarekin lotuta dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak eragimen energetikoa lortzen lagundu nahi du. Adibide gisa, 2008an 2008an martxan jarri da Pagoetako Energia Berriztagarrien Parke Esperimentala, eta eragimen energetikoaren ziurtagiria lortu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txara II eraikinean.

Bide horretatik jarraituko dugu. 2009an Iraunkortasun Energetikoko Plan bat prestatuko dugu Gipuzkoarentzat. Plan horrek eragimen energetikoaren eta energia berriztagarrien sustapenaren inguruko jarduerak ezarriko ditu, epe ertain eta luzera begira.

2.3 GIPUZKOAREN LEHIAKORTASUNA ETA KRISIARI EMANDAKO ERANTZUNA

2.3.1 Egoera ekonomikoaren azterketa

Gipuzkoarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta diputatu nagusiak duten kezka nagusietako bat, zalantzarik gabe, egoera ekonomikoa da. Ekonomi krisia. Bi alderdi aztertuko ditut: alde batetik, egoeraren diagnostikoa; eta, bestetik, egoerari aurre egiteko neurriak.

Nolako izan da Gipuzkoako ekonomiaren adierazle nagusien bilakaera 2008an? Une honetan, 2009. urteari begira, zeintzuk dira Gipuzkoako ekonomiaren joeraren aurreikuspenak?

Krisi honen lehenengo arrazoiaren artean daude, batetik, energiaren eta lehengaien neurritz gainera garestitzea eta, bestetik, finantza sistemaren likidezia eza.

Bigarren arrazoi horrek, "*sub prime*" hipotekak deitutakoen krisiarekin lotura zuzena duenak, diruaren prezioa garestitzea, etxeetako hipoteka merkatuetako berankortasuna, eta kreditu eskaeren eta etxebizitza erosketen atzerakada eragin du. Horrek, aldi berean eraikuntzaren sektorearen hazkundera gelditzea ekarri du, zuzeneko eta zeharkako enplegu osagai handia duena, eta ondasun iraunkorren kontsumoan eragin zuzena duena.

Atlantikoaz bestaldetik inportatutako egoera horrek, oraintxe unerik gorenetan dagoenak, eragin garrantzitsua izan du gure berezko eta ohiko merkatuen hazkunde ekonomikoan, bai Espainiakoetan, bai Alemania, Frantzia eta Europa aldekoetan ere.

Era berean, dolarrak euroarekiko duen bilakaerak ez du uzten beste merkatu batzuen irekiera aurreikusten, euroa garesti egoteak lehiakortasuna kentzen baitie *gure ohiko produktuei*.

Aurten estatuko egoera ekonomikoak izan duen bilakaerari buruzko berriei, eta jardueraren eta enpleguaren aldagai nagusien epe laburreko joeraren aurreikuspenei erreparatzen badiegu, urtean zehar errepikatzen ari diren datuek erakusten digute ekonomiak geldialdi gogorra jasan duela.

Bigarren hiruhileko eta ondorengo hilabeteetako egoera ekonomikoaren benetako datuek egiaztatzen dute adierazle ekonomiko guztiek beherakada garrantzitsua izan dutela.

Eta nola ikusten dugu Euskadiko eta Gipuzkoako egoera?

Eustatek irailaren 15ean argitaratu zituen datuek baieztatzen dute Gipuzkoako ekonomian nolabaiteko mantsotzea gertatu dela urteko bigarren hiruhilekoan, alabaina, 2008ko lehenengo sei hilekoaren hazkundera % 2,8 izan da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuz gero.

2008ko lehen sei hilekoan Gipuzkoako ekonomiak izan duen hazkundeari buruzko bilakaera datuak bat datoz Euskal Autonomia Erkidego osokoekin. Aurtengo hazkunde datuak oraingoz positiboak diren arren, sei hileko bakar batean hazkunde tasa ehuneko 1,4 beheratu den arren, hazkundera % 2 baino gehiago delarik, aberastasuna eta enplegua ari gara sortzen. Krisiak Euskadi eta Gipuzkoa ere astindu ditu.

Datuek eragin apalagoa erakusten badute ere gure lurraldean, gainera datorkigunaren aurrean erne ibili behar dugu.

Gure hazkundearen oinarrian bi faktore nagusi daude: lurraldean eskumena duten administrazio publikoek inbertsioetan egindako ahalegina, eta gure esportazioak % 10,9 handitzearen eta inportazioak % 0,5 handitzearen ondorioz gure kanpoko saldoaren hazkundean egindako ekarpen positiboa.

Etxeetako kontsumoa bi puntu portzentualetan gutxitu da 2007koaren aldean, barne eskaria 1,9 puntu portzentualetan murriztu da, eta kapital ondasunetako inbertsioa 3,3 puntu portzentualetan murriztu da. Hiru adierazle horien bilakaerak azaltzen digu nola eragiten duen krisiak familien kontsumoaren joeretan eta enpresen inbertsio erabakietan.

Abuztuko kontsumorako prezioen indizeak % 4,9ko hazkundera izan du urte arteko neurrietan, estatu mailako indizearen antzekoa, eta Europar Batasunean prezioek izan duten bilakaeratik puntu batean baino gehiagotan aldentzen da.

Gipuzkoako enpleguaren egoera eta bilakaerari dagokionez eta, datu positibo modura, Gipuzkoan enplegua sortzen jarraitzen dugu. Joan den ekainaren 30ean

Gipuzkoako okupazio tasa % 70,3 zen, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren (% 67,8) gainetik.

Jarduera tasa ere handiagoa zen, % 56,9, Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (% 55,1) baino handiagoa. Ekainaren amaieran langabezia tasa % 2,9koa zela, Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren (% 3,5) azpitik, eta Estatukoaren azpitik, % 10 baino gehiago baita.

Gipuzkoako BPGren egiturak hazkunde eredu orekatuagoa eskaintzen du, izan ere, industriaren parte hartzea oso garrantzitsua da, % 34,1, estatukoa berriz % 18,2koa da; bestetik, eraikuntza-sustapenaren sektorearena % 7,1ekoa da, eta estatukoa % 12,1ekoa.

Lurraldearen kanpo balantza positiboak, inportazioen gaineko estaldura ratioa % 157 eta esportazioen pisua BPGren % 31,2 izanik, hazkunderen dibertsifikazioa eta Estatuaren dependentzia txikiagoa dakar.

Zein ondorio atera behar ditugu datu horietatik?

Euskal Herrian eta Gipuzkoan ere ekonomia jardueraren beherakada garrantzitsua gertatzen ari dela ikus dezakegu, eta lehenengo alerta familien kontsumoaren murrizpenean aurkitzen da, murrizpen hori automobilen, iraupeneko kontsumo ondasunen eta etxebizitzaren erosketan ere antzematen da.

Gipuzkoako aldagai ekonomiko guztiek inguruko ekonomietakoek baino portaera hobea dute. Baina horrekin ezin dugu datu horrekin lasaitu; alderantziz, guztiok batera lan gogorragoa egin behar dugu egoerari aurre egiteko eta, bereziki, beharrik handiena dutenei erantzun hobea emateko.

2.3.2 Krisi ekonomikoari aurre egiteko erabakiak

Gipuzkoak baldintza onak ditu krisi ekonomikoari aurre egiteko. Gizarte bizi bat dugu eta herri erakunde osasuntsu eta prestatuak ditugu. Baina, horrez gain, beste eragile handi bat dugu. Taldearen indarra.

Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako nahiz Bizkaiko foru aldundiekin Euskadiren ekonomia berpizteko hitzarmena izenpetua du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eusko Jaurlaritzak aurreratu egingo ditu gure lurraldearentzat garrantzi berezia duten proiektu batzuk, eta horien artean daude Euskotren sarea bikoiztea eta euskal trenbide sare berria egitea. Erakunde guztiok era koordinatuan egingo dugu lana.

GIPUZKOA AURRERA ekimenaren barruan, gogor ari gara lanean egoerari aurre egiteko diagnostikoa eta erabakiak zehazteko. Funtsezkoa da erakundeok, enpresak eta gizarteak elkarturik joatea.

Aurrekontu eta finantza politikaren ikuspegitik begiratuta, aurrezpen publikoari eustea, egonkortasun legea betetzea, gastu arrunta ez handitzea, gastu sozialari eustea eta inbertsioa sustatzea. Aurrekontu politika horri esker, egoerari aurre egingo diogu indartsu eta arduraz.

Alderdi hauek nahi nituzke nabarmendu:

- Aldundiak 2008an 1.129 milioi euro ditu kudeaketarako aurrekontu propioan.
- Kudeaketarako aurrekontu propio finkatua (GFA, Bidegi, IZFE, Uliazpi Fundazioa eta Etorlur) 1.477,6 milioi euro izango da 2008an.
- Aurten onartutako aurrekontuen % 68,7 inbertsioetara xedatu da, guztira 995,8 milioi euro.

- Aurrekontuetan ageri den finantza karga 2008an 15,6 milioi euro izango da, hau da, kudeaketa aurrekontu propioaren % 1,3.
- Kudeaketako Aparteko Aurrekontuak 181,7 milioi euro ditu agintaldiaren hasieran zehaztutako helburu estrategikoei aurre egiteko.

Gure aurrekontuak 2009an hazkundera eta egonkortasun ekonomikoa ziurtatzeko helburua izango du. Gastu arrunta gutxitu egingo dugu, gastu sozialari eutsiz eta inbertsioei lehentasuna emanez, ekonomia indartzeko.

Krisiari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuko dituen neurri garrantzitsuenak azaldu nahi dizkizuet.

Zerga alorrean, aurki Sozietateen gaineko Zergaren foru araua berri bat aurkeztuko dugu. Adostasuna ari gara lantzen, eta diputatu nagusi honen borondatea da Gipuzkoak izan behar duen sozietateen gaineko zerga gure lurraldearen ekonomiaren lehiakortasuna sustatzeko modukoa izatea, Euskadiren zerga harmonizazio egoera batean. Gainera, zerga alorreko erabakien katalogo bat gauzatu beharra dago, bai alderdi normatiboan, bai kudeaketan ere, inbertsioa eta enplegua sustatu, eta ekonomiaren garapenari laguntzeko.

Oinarrizko gai bat nahi dut nabarmendu hemen. Erabat baikor naiz elkarten gaineko zergaren gaiari buruz. Lehenik, erabat sinetsita nago adostasunera iritsiko garela. Bigarrenik, komunikabideetan barrena esaten dena gora-behera, gobernukideen arteko harremanak benetako konfiantzakoak eta elkarren arteko lankidetzakoak dira.

2008an urte bikaina izan da errepideen azpiegituretako inbertsioetan Gipuzkoan. BIDEGIren aurrekontua 283 milioi euro da. Datorren urtean gutxi gorabehera 305 milioi euro izango ditu. Aurrekontu horri gaineratzen badiogu Bide Azpiegituretako Departamentuak duen aurrekontu arrunta (batez beste, 150 milioi euro), Aldundiaren inbertsio ahaleginari benetako neurria haurtuko diogu.

Beraz, gure asmoa da obra publikoak aurreratzea, adibidez, 632 errepidean (Beasain-Durango) Urretxu-Bergara zatia eraikitzeke lanak aurreratu nahi ditugu, guztira 185 milioi euroko aurrekontuaz. Horrek esan nahi du Gipuzkoaren biribilgunearen amaiera aurreratu egingo dugula, gure lurraldearen garapenerako azpiegitura funtsezko batean.

Bestalde, gure enpresen likidezia errazteko helburuaz, foru administrazioaren ordainketa epeak arindu egingo ditugu, eta aurreko aurrekontu ekitaldien aldean zerga itzulketak aurreratu egingo ditugu, administrazioak nahitaez egin behar duen egiaztapena inoiz baztertu gabe, noski.

Gipuzkoako Foru Ogasuna funtsezko tresna bat da ekonomi krisiari aurre egiteko. Herritarren konfiantza indartzeko lanean jarraitzen dugu. Aldundiak ahalegin handi bat egin du herritarren konfiantza handitzeko. Zerga iruzurraren aurkako plan berri bat gauzatzen ari gara eta iraganean gertatu izan ziren gorabeherak argitzeko inolako epelkeriarik gabe ari gara lanean.

Foru Ogasunean egin dugun kudeaketak erakusten du, argi eta garbi, herritarrekin bat egiten dugula eta gizartearen zerbitzura gaudela.

Bestalde, kutxen bategite prozesuaren alde agertu nahi dut zalantzarik gabe. Zorroztasunez eta eraginkortasunez egin behar da prozesu hori. Bategitea

beharrezkoa da, gure herriak finantza erakunde ongi dimentsionatutakoak behar baititu, mundu globalizatu honetan lehiakor izan nahi badugu.

2.3.3 Berrikuntza, lehiakortasunaren eragile

Krisiari erantzuteko bidean, bilatu beharra daukagu, baita ere, egiturazko arazoak konpontzeko modua, gure lurraldearen lehiakortasuna baldintzatzen duten alderdiak aldatuz.

Lehiakortasunaren giltza berrikuntzak dauka. Gipuzkoa aurrerabidean doa eta ia Europako batez bestekoa lortu du. Bere Barne Produktu Gordinaren % 1,79 erabiltzen du ikerketa eta garapenean. Europan, batez bestekoa % 1,84 da, eta Espainian % 1,20. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukagu urrun gairela Europako herrialde aitzindarietatik. Bost herrialde hobereenen batez bestekoa % 2,79 da, eta buru-buruan dira Suedia % 3,82rekin, eta Finlandia % 3,45rekin. Horiek dira gure erreferentziak.

Gipuzkoa BERRIKUNTZAREN lurralde bihurtu nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa da Gipuzkoako gizartean balio berriak sustatzea: ekintzailetasunaren kultura bultzatu beharra dago, lurraldeari balio handia erantsiko dioten proiektuak sustatu behar dira, berrikuntza aplikatua eta irekia lagundu behar dugu, eta informazioaren eta jakintzaren teknologiak ezarri behar ditugu, bai enpresetan, bai herri administrazioetan.

Berrikuntzaren funtsezko oinarria pertsonak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin handia egiten du ikaskuntza emozional eta soziala sustatzeko. Prestakuntza programak antolatu ditugu esparru honetan. Guk bultzatu dugun prozesuan Gipuzkoako unibertsitatez besteko irakasleen % 15 inguru trebatu da, eta ikastetxeen % 30 izan da inplikaturik.

Aldi berean, "jarduera tasa" goratzeko lanean ari gara, batik bat emakumeen artean. Emakumeen ekintzailetasuna sustatzeko programa bat antolatu dugu, Europa osoan inoiz egin ez diren ekintza aitzindariekin, EMEKIN programaren bitartez.

Foru Aldundiak laguntzak ematen ditu Txekin eta Txekintek programen bidez, ideia enpresarialak sustatzeko. Joan den urtetik, "Seed Gipuzkoa" izeneko ekimena martxan dugu, arrisku-kapitaleko sozietate bat, sortu berri diren enpresei laguntzeko.

Lehiakortasuna hobetzeko, azpimarratu nahi nuke Eusko Jaurlaritzarekin eta beste bi aldundiekin izenpetu dugun hitzarmena, bi eratako proiektuak sustatzeko: alde batetik, gure Erkidegoarentzat estrategikoak diren inbertsioak ezartzea "Inbertsio Estrategikoen Funtsaren" bitartez; eta bestetik, "Partaidetza Industrialen Funtsa" sortzea, 400 milioi eurokoa, beste inbertsiogile pribatuekin batera, kapital handiagoa behar duten proiektu adierazgarriagoak garatzeko.

Lehen urratsa 2008ko uztailean egin dugu, EKARPEN SPE sortuta, Eusko Jaurlaritzaren, hiru aldundien eta hiru aurrezki kutxen artean, hastapenean 100 milioi euro konprometituta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aldezen osoa ematen dio Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Sareari, teknologia zentroak, unibertsitateak, enpresen ikerketa eta garapen unitateak eta abar biltzeko gunea den heinean. Bide horretan aurrera egingo dugu, berrikuntzari begira diren proiektuei lehentasuna emanez. Datorren urtean, gure asmoa da 18 milioi euro inbertitzea berrikuntzara egokitutako azpiegitura proiektuetarako. Horrez gain, teknologia zentroek eta ikerketa zentro kooperatiboek 5 milioi euro inguru jasoko dute.

Berrikuntzaren esparruan gure erakundearen jardueraren beste tresna garrantzitsu bat GIPUZKOA BERRITZEN elkarte da, Gipuzkoan ikerketaren eta garapenaren alorrean egiten den inbertsioari balioa ematen saiatzen dena. Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzat estua du INNOBASQUE Berrikuntza Agentziarekin.

Gipuzkoa gero murgilduago dago informazioaren eta jakintzaren gizartean, atzerabiderik gabe gainera. Bide horretan aurrera goaz, zenbait programaren eskutik: enpresetan IKTak gauzatzeko laguntzak; enpresa txikietan kudeaketa softwarean inbertitzeko laguntzak; administrazioetan IKTak ezartzeko laguntzak; enpresentzako produktu nahiz zerbitzu berriak, eta abar.

2.4 ONGIZATE SISTEMA

Gure agintaldi honen ardatz nagusietako bat da, zalantzarik gabe, gizarte ongizatearen sistema hobetzea. Erantzun eraginkor bat eman behar diegu, gure gizarte politikaren bidez, lehentasunezko gizataldeei: gero eta zahar mendeko gehiago ditugu, gero eta adingabe etorkin lagundu gabe gehiago, gero eta ezgaitu gehiago, gero eta pertsona gehiago bazterketa arriskuan, eta abar. Aurten, gizarte politikan jauzi kualitatibo bat egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak, gure aurrekontua % 20 goratu baita aurreko urtearen aldean.

Gizarte elkartasunaren iturri nagusia gizartea bera da, gu gara. Foru Aldundia programa bereziak lantzen ari da gure herritarren artean etika, konpromisoa eta erantzukizun sozial nahiz komunitarioa ezartzeko.

Zerbitzu sozialen mapa berria da gure ibilbide orri nagusia gizarte politikaren esparruan: mendekotasuna artatzeko zerbitzuen estaldura, espezializazioa eta lurralde oreka hobetzea; zaharrak edo ezgaituak zaintzen dituzten familien laguntza indartzea; eta adimen gaixotasunetan edo etorkin adingabeen esparruan ditugun hutsuneak lehenbailehen betetzea dira gure gobernu ekintzaren lehentasunezko helburuak.

Lantzen hasiak gaude 2008-2012 aldira Zerbitzu Sozialen Mapa egiteko prozesua. Mintzatuak gara sektore bakoitzeko elkarrekin eta batzarkide taldeekin. Ekarpenen aldia amaiturik, laster aurkeztuko dugu Zerbitzu Sozialen Mapa berria.

Zahar mendekoak zaintzeko, 1.530 plaza gehiago sortzea planteatu dugu (gaurko 4.795etatik 6.325tara igotzea), eta eskualde bakoitzean gutxienik unitate psiko-geriatriko bat ezartzea. Etxeko laguntza zerbitzuan, 8.111 pertsonetara heldu nahi dugu (gaur egun 6.146 dira). Eguneko Zentroak jai egunetan ere zabaltzea planteatu dugu.

Ezgaitasunaren esparruan, egoitzetako 305 plaza gehiago sortu nahi ditugu, eta plaza guztien % 40 adimen gaixoentzako gorde. Gizarteratzearen esparruan, gure helburua da harrera zentroetan 244 plaza gehiago sortzea.

Haur eta gazteen alorreko gizarte politikari dagokionez, lehentasuna da behar bezalako gaitasuna izatea lagundu gabe datozen etorkin adingabeei harrera egiteko. Gure iritziz, egoitzetan 554 plaza beharko dira laster (2007an zeudenak halako bi) eta famili harreratan beste 284, guztira.

Gure iritziz, hausnarketa sakon bat egin behar da lagundu gabe datozen etorkin adingabeen harreraz. Gazte horiei harrera egin behar diegu, eta elkartasunezko ahalegin bat egin behar dugu haiek gizarteratzeko. Helburu hori lortu nahi badugu, elkartasunaren eta gizarteratzearen balioa barneratu behar dugu, guztiok salbuespenik gabe. Adingabe etorkinak ez dira arazo bat. Badira arazoak pertsona

gutxi batzuekin. Kontu hau ezin da demagogia politikoaren gai izan. Denok jokatu behar dugu erantzukizunez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lanean jarraituko du gai horri erantzuna emateko, eta sentiberatasun edo gizarteratze kanpainak egingo ditu, integrazioan eta errespetuan hezi gaitzen.

2.4.1 Mendekoen babes

Lan handia egin dugu Mendekotasunaren Legea garatzen Guztira, 20.847 pertsonaren balorazioa egin dugu eta 3.123 eskaera bideratu dugu.

Etxetek programaren barruan, lanean ari gara mugikortasuna hobetzeko, etxebizitzaren erabilerraztasuna laguntzeko, eta komunikazio tresnak hobetzeko; tresna horien artean aipagarriak dira, besteak beste, pertsonen arteko komunikazio gailuak, mintzoa ezagutzeko sistema eta gailu informatikoak.

Adimen osasunaren esparruan ditugun baliabideak hobetu eta zabaldu behar ditugu, zalantzarik gabe. Legorretan larritasun ertaineko gaixoentzako 10 plaza dituen etxebizitza bat zabaltzearekin batera, Beasaingo Eguneko Zentroa zabalduko da laster, eta Eibarko Eguneko Zentroa zabaltzeko obrak hasita daude.

Adimen gaixotasuna duten pertsonak zaintzeko konpromisoaren bidean, laster 20 plazako egoitza txiki bat zabalduko da Gurutze Gorrian.

Osasun eta gizarte laguntzaren esparruari dagokionez, proposamen zehatzak egin dizkiogu Gipuzkoako Osasun eta Gizarte Zaintzako Lurralde Kontseiluari. Legealdi honetarako helburua da, zaintza psiko-geriatrikoan, unitate batzuk ezartzea zaharren egoitzetan.

Horrez gain, beste 140 plaza gehiago sortu nahi ditugu osasun eta gizarte unitateetan, eta 126 gehiago adimen gaixotasun larri edo kronikoa duten pertsonak zaintzeko baliabide espezializatuetan. Begi bistakoa da alor horretan lan handia dugula egiteko, baina hedadura horretara iritsita, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia egingo dugu.

2.4.2 Gizarteratzea eta enplegua

Gizarteratze eta enplegu gaietan, esleitua dago Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Harrera Egoitza antolatzeko zerbitzua.

Aurten, pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea onartu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan munduan sartzeko laguntzeko plan berri bat antolatu du, «Sarbideak» izenekoa, 2008-2012 aldirako, gizatalde behartsuentzat. Bazterketa arriskuan dauden pertsonak lan munduan sartzeko ekimen multzo bat da.

«Lortuz» izeneko emantzipazio programa antolatu dugu, emantzipazio prozesuari ekiten dioten 18-25 urte bitarteko gazteei laguntzeko, formazio eta egokitzapen aroa gainditzen dutenean, arduraz konprometitzen badira formazioari jarraitzen eta lan munduan irauten, emantzipazio eta autonomia ekonomikoa lortu arte.

2.4.3 Haurrak eta gazteak

2007an, guztira, 1.350 adingabe artatu ditugu, horietatik 1.100 gipuzkoarrak ziren eta 250 bakarrik zeuden atzerritarrak. 2008ko maiatzaren 31 bitartean 1.258 adingabe izan ditugu gure ardurapean, 1.005 gipuzkoarrak eta beste 253, bakarrik dauden atzerritarrak.

Gizarte Politikako Departamentuak 40 bat etxebizitza ditu lurralde osoan banatuta harrera programa ezberdinei aurre egiteko. Eskuragarri dauden plazen eskaintza ez da nahikoa eskariari erantzuteko. Behar horri aurre egiteko, 2008an ekipamendu berriak zabalduko direla iragartzen dugu. Aurten beste hamar etxebizitza moldatuko dira, 104 plaza gehiago izan ditzagun.

Gizartearen egiturak eraldaketa sakona bizi du. Aldaketa horrek eragin nabarmena izan du biztanleriaren hainbat sektoretan. Nola erantzun behar diogu datorkigun egoera horri? Nola erantzun behar diegu gizarte politikaren alorrean sortzen ari diren beharrei?

Oraingo gizarte zerbitzuen ereduaren eta bere finantzaketaren azterketaz ari gara. Gipuzkoako Foru Aldundia hasi da, dagoeneko, gai horren inguruko hausnarketa egiten. Eman ditzakegun erantzunek lotura zuzena dute lortu nahi dugun gizartearekin eta defendatzen ditugun gizarte baloreekin. Hori ez da bigarren mailako kontua. Neurri handi batean, gizarte industrial aurreratuek kontraesan gogorra bizi dute eskubide eskaeraren eta betebeharraren eta erantzukizunen artean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, legealdiaren hasieratik, apustu garbia egin du giza eskubideak, berdintasuna eta gizarte erantzukizuna sustatzeko, ongizatea lortzeko oinarritutako elementuak baitira.

Gipuzkoako Foru Aldundia giza eskubideen alde lanean ari diren erakundeekin hainbat programa bultzatzen ari da, eta Arabako nahiz Bizkaiko aldundiekin lanean ari da plan gidari bat prestatzeko datozen urteei begira. Berdintasunerako plana martxan jarri da eta biziki garatzen ari da. Emakunderekin koordinatuta, udalantzako eta elkarteentzako laguntzen dekretu bat abiarazi da, eta ikastetxeetan "rol aldaketa" izeneko kanpaina bat egin dugu.

2.5 GOBERNANTZA PROAKTIBOA

Hausnarketa bat egin nahi nuke Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu duen Gobernantza ereduaren inguruan, kultura politiko berri batean eta lidergo partekatuan oinarritutako ereduaren inguruan, alegia.

Horiek dira gure nortasun ezaugarriak.

Gobernantza, Gipuzkoari buruz dugun ikuspegi partekatua egituratuko duen tresna da. Erakundearen lidergo partekatuan, elkarteekiko komunikazioan eta harremanetan, eta gizarte zibilak politika publikoetan izan behar duen partaidetzaren sustapenean oinarritutako egituraketa da. Gobernantzaren testuinguru honetan, kudeaketa tresna batzuk azpimarratu nahi nituzke, gure politika publikoak garatzeko funtsezkoak baitira.

Kudeaketa plan bat egin dugu eta, horri esker, barne kohesioa handitu da eta gizarte politiken ezarpenean eraginkortasun handiagoa lortu da.

Kudeaketa plana taldean lan egiteko modu berri baten hasiera da, non taldeko ikuspegiak lehentasuna duen, eta erakundearen arteko harremanetarako erreferentzia tresna da.

Kudeaketa planetik abiatuta foru administrazioa modernizatzeko plan bat jarri dugu martxan eta horren bitartez hobeto zehaztuko ditugu lanpostuak, egokitzapen teknologikoa lortuko dugu, prestakuntza bultzatuko dugu, barne koordinazioa hobetuko da eta, oro har, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu orokor guztiak hobetuko dira.

Udalekiko harremanak funtsezko osagaia dira gure Gobernantza sistemaren barruan. Gipuzkoako Foru Aldundiak erabat aldezen du Udalen Legea eta udalek gure herriaren zuraje instituzionalean leku nabarmena izatea; eta horretan guztiz koherenteak gara gure politika guztien ateburuan den lidergo partekatuaren ikuspegiarekin.

Kanpo harremanen esparruan, azpimarratu nahi nuke Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak nolako garrantzia eta sendotasunarekin bideratu dituen eurohiriko erakunde harremanak.

Laster zabalduko dugu eurohiriko garapen agentzia, hegoaldeko zein iparraldeko udalek parte hartzeko aukera izan dezaten. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrekin lankidetzan bidean aurrera goaz.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke euroeskualeko konferentzian parte hartzen dugun sei erakundeek elkarrekin bat eratu dugula eraginkortasuna hobetzeko, eta elkarrekin egotea Baionan egongo dela.

3. EGOERA POLITIKOAREN DIAGNOSTIKOA

ETAren indarkeriak oinarrizko giza eskubideak urratzen ditu eta, pertsona eta familia askorengan eta gizarte osoan konpondu ezinezko kalteak sortzen jarraitzen du.

Gainera, ETAk, euskal gizartearen borondatea bortxatzen du modu antidemokratikoan.

Indarkeria eta euskaldunen erabakitze eskubidearen printzipioa bateraezinak dira, eta gure herriaren etorkizuna eraikitze prest gauden guztion gogoan hondatzen ari da.

Euskal gizartearen gehiengo osoak ETAren indarkeria gaitzesten eta baztertzen dugu. Benetan nazkatuta eta nekatuta gaude. Euskaldunok ETAren amaiera nahi dugu, elkarriketaren bidezko amaiera, baldin eta ETAk armak behin betiko uztea erabakitzen badu.

Terrorismoaren iraupenak gure gizartearen dituen eraginei buruzko hausnarketa egin nahi nuke zuekin. Azken egunotan Santoñan, Ondarroan eta Gasteizen izan diren atentatuak aurrez aurre jarri digute zorritzarako eta saihestezinako errealitate bat. Bidegabeko eta alferrikako sufrimenduaren errealitatea, batetik, eta gertatutakoa ahuleziatik ikusten duen gizartearen errealitatea, bestetik.

Hala da; badirudi azkenaldi honetan etsipena eta ezkontasuna nagusitu direla gure artean. Nire ustez, ezin dugu etsi, ez eta onartu ere hain ezaguna zaigun lehegailuen, hilketen eta askatasunik gabe bizi diren pertsonen paisaia hori; politikari, enpresari, polizia, epaile edo militar izateagatik demokrazian gordinegia den zerga ordaintzen ari diren pertsonena eta, ez bairik gabe, bizi diren gizartearengandik askoz gehiago merezi dutenena.

Gizartearen eta politikaren anormaltasun egoera hori ez da onargarria, inola ere, eta ez legoke soberan hausnarketa ozena egitea ohikotasunak eta eraso terrorista

gutxiesteak gizartearen moralean dituen ondorioei buruz, herri kemena galtzeari dagokionez.

ETAren indarkeriaren deslegitimazio etikoa, politikoa eta soziala gainditu gabeko gai bat da, oraindik ere, gure gizartean. Ondo dago indarkeriaren aurkako demokraziaren oinarriko printzipio gisa aipatzea, baina premia handiagokoa da praktikan jartzea eta komunitate sentikor gisa ditugun bakarkako nahiz taldeko erantzunak erasotua izan den duintasun morala eta etikoa berreskuratzera bideratzea.

Egin al dezakegu beste ezer ETAK, behin betiko, armak uzteko erabakia eman dezan? Nik baietz esango nuke.

Denok batera jardun behar dugu, jarrera politikoak alde batera utzita, bakearen aldeko ekimenekin okupatu behar dugu espazio publikoa.

Normalkuntza politikoaren ikuspegitik, baieztapen bakarra egin daiteke: euskal politika blokeatuta dago. Estatuak ez du gure errealitate plurinazionala onartzen eta ez dago prest euskal gizarteak bere etorkizuna erabaki dezagun. Espainiar nazioaren burujabetasuna onartzearekin batera, euskal nazioari erabakitzeko eskubidea ukatzen zaio.

Estatuko zuzendaritza politikoa gure erakunde sistema debaluatzen ari da, bere interesen arabera erabiltzen duelarik, eta gure gizartea bigarren mailako aktore bilakatu nahi du, mendeko eta bigarren mailako gizarte.

Blokeo politikoak, baina, ez du esan nahi dena geldirik dagoenik; inolaz ere ez. Azken urteotan, gure erakunde sistemaren garapenaren aurkako uhin bat ari da sortzen. Kontua ez da bakarrik estatutuaren hitzarmena ez betetzea edo Eusko Legebiltzarraren gehiengoa jaso duten erabakiak baztertzea; jarduera multzo handi bat da (ekonomia ituna, kutzak bateratzea, gure herriaren trataera hedabideetan), gure erakundeentzat, bizikidetzaren sistemarentzat eta euskal iritzi publikoarentzat ondorio negatiboak dituena.

Euskadin zaila da, gaur egun, joera politikoaren arteko adostasun puntuak aurkitzea.

Indarkeriaren eta bere ondorio dramatikoaren iraunkortasuna. Blokeo politikoa. Erakunde sistemaren eta gizabide kulturaren gainbehera eta gizarte osoaren nekea. Horietxek dira bizi ditugun ondorioak.

Orain kontua da: egin al dezakegu ezer egoera horri aurre egiteko edo ezin dugu ezer egin? Nik baietz esango nuke.

Egin dezakegu, egin behar dugu eta egingo dugu zerbait bakearen eta normalizazio politikoaren alde.

Lehenik, euskal politikaren oinarri izango diren printzipioak ezarri behar ditugu. Orain arte ezinezkoa izan da, baina uste dut beharrezkoa dela:

- Giza eskubideak errespetatzea eta prozedura demokratikoen inguruko adostasun etikoa lortzea.
- Euskal herria aitortzea eta erabakitzeko eskubidea onartzea (eztabaida bat eginik eskubide hori arian-arian erabiltzeko, dogmakeriarik gabe).
- Alderdi politiko guztiak, salbuespenik gabe, demokraziaren barne izatea. Ideiak edo alderdi politikoak legez kanpo utzita, ez diogu ezertan laguntzen ETAren amaierari era gure herriaren kultura demokratikoari kalte besterik ez dio egiten.

- Benetako eta egiatzko pluraltasuna onartzeko bide demokratikoa egitea, errespetuan oinarri hartuta. Ez dago pluraltasunaren onarpenik aldeetako baten gailentasunetik bakarrik, eta ez dago benetako pluraltasunik testuinguru plurinazional batean berau osatzen duten nazioetako baten burujabetza bakarrik onartzen bada.

Bigarren, euskal gizarteak protagonismo handiagoa eskuratu behar du subjektu aktibo gisa, ETA behin betiko armak uztera behartzeko eta normalizazio politikoa erdiestea ekarriko duen akordio politikoa bultzatzeko. Euskal gizarteak oxigenoa eman behar dio sistema demokratikoari, eta gizartearen indar etikoak eta politikoak gaur egungo egoera eraldatuko duen indarra izan behar du. Eusko Legebiltzarraren lege baten bitartez onartutako kontsulta demokratikoari ateak ixtea, demokraziaren izaeraren aurkakoa da. Legeak era arbitrarioan erabiltzea, zilegitasun bakartzat espainiar nazioarena ezartzeko, ez dugu inoiz onartuko; euskal gizarteak ez du hori sekula onartuko.

Hirugarren, gure erakunde sistema indarberritu behar dugu eta gure baliabide eta mekanismoekin egin behar dugu. Barne eraikuntzari ekin behar diogu. Aurre egin behar diogu, jarrera positibo eta kementsuarekin. Horrela bakarrik izan gaitzake gure etorkizunaren protagonista. Erakundeek eta gizarteak elkarrekin aritu behar dugu. Gure erakunde sistema indartu behar dugu eta partaidetza zuzenerako bideak zabaldu behar ditugu, euskal gizarteak erabakitzeke eskubidea arian-arian eskurago izan dezan.

Laugarren, eta azken, gure balore, jarrera eta jokabide politikoen inguruko hausnarketa egin behar dugu, hau da, alderdi politikoen arteko elkarrizketa eragozten ari den gure kultura politikoen inguruan; eragile bakoitzak mahai gainean jartzen dituen eduki politikoen bateraezintasunaren inguruan. Gure kultura politikoak ez digu uzten komunikatzen, ez eta blokeo egoerak aldatzen ere.

AZKEN ONDORIOA

Aurrez aurre ditugun eginkizun guztietan, Gipuzkoarrok geuregan sinetsi behar dugu. Zatiketak gaindituz eta guztion proiektua indartzen duten puntuetan bat eginez.

Aro berri baten atarian gaudela konbentziturata nago; aldaketa honek politikaren dimentsio tradizionala gainditzen du eta herrigintza eta gizartearekiko zerbitzura beste modu batean garatu behar direla erakusten du. Ikuspegi berri horretan, liskarrak ez du lekurik, alderaketa eraikitzaileak baizik; bazterketak ez du lekurik, integrazioak baizik. Norberekeriak ez du lekurik, eskuzabaltasunak eta emankortasunak baizik. Balio eta ideia horiek jarraituz arituko naiz eguneroko lanean Gipuzkoar guztion zerbitzura.

Amaitzeko, nire azken hitzak terrorismoaren biktimei eskaini nahi dizkiet.

Eurekiko konpromisoa adierazi nahi dut. Ezin ditugu ahantzi.

Gertu izango nautela jakinarazi nahi diet.

Mila esker.